

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzordearen 2020ko urriaren 1eko ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, 2019. urtean seme-alabak jaiotzeagatik eta/edo adoptatzeagatik laguntzak emateko deialdia egiten da

BDNS(Identif.): 527015

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/527015>).

Lehenengoa. Onuradunak

Honako baldintza hauek betetzen dituzten gurasoak:

1. Diru-laguntza 2019an seme-alabak jaiotzeagatik eta/edo adoptatzeagatik emango da.
2. Onuradunak Amurrion 5 urtez errolatuta egon behar du azken 10 urteetan, eta gutxienez urte horietako batean etengabe eta jaiotza- eta/edo adopzio-data baino lehenagotik.
3. Familia-unitatearen diru-sarrerak ez dira urtean 20.000,00 eurotik gorakoak izango. Laguntza horiek eman ondoren aurrekontu-partidan kreditu erabilgarria geratzen bada soilik handitu ahal izango da laguntza horien emakida, urtean 20.000,00 euroko diru-sarrerak gainditu ez arren, 25.000,00 eurotik gorakoak ez diren familietara. Bigarren sarrera-tarte honetan aurreikusitako familiei eman beharreko banakako gehieneko zenbatekoak murriztu ahal izango dira, lehen sarrera-tarteari dagozkion laguntzak baloratu eta eman ondoren eskura dagoen aurrekontu-esleipenarekin estaltzeko behar den ehunekoan.
4. Ezinbestekoa da eskatzailearen familia-unitate osoa Amurrion errolatuta egotea jaiotza edo adopzioa gertatzen den unean.

Bigarrena. Helburua

Haurren jaiotzagatiko eta/edo adopzioagatiko 2019ko diru-laguntzak arautzea, norgehiagoka-araubidean.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Amurrioko Udalaren 2020ko apirilaren 3ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu ziren, eta haren eduki osoa ALHAOn argitaratu zen, urte bereko ekainaren 19an.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako 10.000 euroko zuzkidura dago.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hogeita hamar egun naturalera arte.

Amurrio, 2020ko urriaren 6a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA